

# LARRUGINTZA

## AURKIBIDEA

### ➤ SARRERA

### ➤ GAIAREN GARAPENA

1. LARRUAREN HISTORIA.
2. LARRUAREN JATORRIA.
3. LARRUGINTZA.
4. ABARKAGINTZA.
  - 4.1 Abarkak nola egiten dira?
  - 4.2 Abarkak nola egingo dituzue?  
Abarkak egiteko prozesua.
5. KOMERTZIALIZAZIOA.

### ➤ HIZTEGIA

### ➤ BIBLIOGRAFIA

### ➤ AKTIBITATEAK

## GAIAREN GARAPENA

### 1. LARRUAREN HISTORIA.

Larrua gizakiak ezagutzen duen gai zaharrenetakoa da eta baliteke berau gabe bizirik iraun ez izatea. Historiaurreko gizakia, elikatzeke ehizatzen zuena, animalien larruekin jantzi, hobea egin, kanoak eraiki eta eurietaz babestu ahal zuela jabetu zen. Baina bere arazo nagusia larrua zaintzea eta usteltzea ekiditea zen; eta horrela hasi zen larrua gazitzen eta keztatzen (arrainekin eta haragiekin egiten den bezalaxe), nahiz eta prozedura honekin ez lortu larruak gogorrak eta hauskorak ez geratzea, denbora batean kontserbatzea soilik baizik.

Ez dakigu zehazki larruazalaren eraldaketa hasierako larru mota batean nola ikasi zuen, baina belarrekin eta edateko eta jateko fruituekin saiakuntzak eginez gertatu zela suposatuta ahal dugu. Milaka urtetan gizakiak ugaztunen, narrastien eta baita arrainen larruazala zurratzeko eta ontzeko teknika desberdinak garatzen jarraitu du.

Larrua lantzea beste eskulangintza moduak baino lehenagokoa da. Mundu osoko zibilizazioak landu dute (Antzinako Egipton jatorria duten balio handiko piezak aurkitu dira) eta lantzen jarraitzen dute. Noski, garaiekin erabilpenak aldatuz joan dira, hain adibide bitxiak adierazten duen bezala: antzinako gizakiaren oinetakoak izatea eta Rolls-Royce autoen luxuzko tapizerian erabiltzea.

### 2. LARRUAREN JATORRIA

Aukeran dauden animalien gehienek larruazalak onartzen dute zurratze prozesua eta bakoitzari komertzioak ezarri dio erabilpen berezi bat.

- ✓ Idiaren larrua: zola lodientzako, transmisioko uhalentzat,...
- ✓ Behien larrua: zola, aulkigintzan,....
- ✓ Ardi, ahuntz, azeri,...: enkuadernazioan, goanteak eta larrugintzan, oinbularretako, ...
- ✓ Krokodilo, suge, muskerra: oso preziatuak eta erabilpen handiko larruazala dute; normalean fantasia eta luxuzko artikulua lantzeko erabiltzen dituzte.

Normalean gure lantegietan lantzen diren larruazalak kontsumorako hiltegietan hildako abereetatik lortzen dira, bigarren maila batean modu natural batez hildako animalietatik iristen zaizkigu eta azkenik atzeritik inportatuta daudenak ditugu.

### 3. LARRUGINTZA

Animaliaren larruazala kentzen dugunean, bere kontserbazio egoera edozein dela eta, ez dauka berehalako erabilpena industrian. Beraz, beharrezkoa gertatzen da ontzea, hau da, larrua bezala ezagutzen den gai ustelgaitzan eraldatzea.

Zurratze aurretiko lanak hurrengo hauek dira: uretan jarri, ilea kendu, karea kendu, eta larrua zerratu edo moztu erabilpen berezietarako.

***Garbiketa edo bustialdia.*** Operazio honekin larruak lehortzerakoan galdutako ura hartzen du eta larruazalari itsatsita dauden lizunkeriak, odola, lokatza... garbitzen dira.

Modu desberdinak daude garbiketa egiteko eta larruazalaren egoeraren arabera bat ala bestea erabiltzen da (larrua izan daiteke freskoa, gatzatua, lehorra, ...). Normalean ura eta produktu kimikoren bat erabiltzen da.

***Depilatu (ilea kendu).*** Ekintza honen helburua larruazalaren dermisa eta epidermisa banatzea da. Horretarako modu desberdinak daude: beroa erabiliz, karearen bitartez eta produktu kimiko desberdinaz erabiliaz. Garai batean depilazioa kare hutsarekin egiten zen, gaur egun sulfuro alkalinoa, artsenikoa eta abar erabiltzen dira. Kare hutsarekin landutako larruazalak, eskuz depilatzen dira. Gaur egun lantegi handietan prozesu hau makinetan egiten da.

***Haragi-bereizketa.*** Larruazalean itsatsita dauden haragi puskak, zati koipetsuak, mintzak, ... kentzea du helburutzat. Makinaz ala eskuz egin daiteke, lanbide honetan aritzen diren artisau gehienak eskuz egiten dute, honetarako aulki eta labain bereziak erabiltzen dituztelarik.

***Kare-garbiketa.*** Larruazalak aurreko operazio desberdinetan xurgatutako produktu kimiko desberdinak kentzea du helburutzat. Prozesu honek larruazalaren hanturan eragina du.

***Beratze edo ontzea.*** Pauso honekin (*coafite* edo hartxidura deitzen dena baita), larruazalaren albuminoideak disolbatzen dira, xaboi kaltziokoak eta koipeak deskonposatuz eta larruazaletik kanporatuz. Era honetara larruazala biguna gelditzen da.

Beratze hau aitzinean zenbait abereen (txakurra, oiloa eta usoa) gorotzekin egindako bainuaz lortzen zen. Gaur egun abere hauen gorotzen ordeztatu produktu artifizialak erabiltzen dira, lurrazalean usaiarik uzten ez dutenak.

Zurratzerako aurreprestaketa honekin bukatzeko larruak garbitu behar izaten dira.

***Larruazalaren zerratzea (ebaketa)*** Larruazala bi zatitan zatitzen da. Kanpoko zatia “la parte de la flor” delakoa taninoekin edo kromo erara zurratzeko erabiltzen da; eta barneko zatia “la parte de la costra” altzarietarako, uhalgintzan eta abarrerako.

Aipatutako lan desberdinak burutu ondoren larruazala zurratze prozesuarekin hasteko prest dago; hau da, larruazala larruan eraldatzeko. Zurratzean, erabiltzen diren gaien izaeran arabera bi taldetan banatzen da: landare zurratzea (taninoen bidez) eta zurratze minerala.

Taninoak landare askotan azaltzen diren gai organikoak dira, larruazala larruan bihurtzen dute, eta beraien artean konposizio kimikoan eta ezaugarri desberdinetan bereizten dira. Gai taninotsuak azalean, hostoetan, fruitu eta hazietan, erraboila eta sustraietan, zezidioetan eta zenbait landareen zukuetan agertzen dira.

Tanino begetalak bezalaxe zenbait aluminiozko, burdinazko, manganesozko, e.a.-rezko gatz mineralak erabili ohi dira larruazala larruan eraldatzeko. Dena den, azken urte hauetan zientziak eta teknologiak zenbait gai sintetiko lortu ditu zurraketa prozesua kalidadean, azkartasunean, koloretan e.a.-ean hobetzeko.

Beste askoren artean erabilitako metodo bat haritzaren azaletik lortutako taninoarena da. Zuhaitza “izerdie” sasoiaren dagoenean -udaran- egiten da. Aizkorarekin ebaketa bat egiten da azalean, aizkoraren burua sartuta palanka eginez azala askatzen delarik. Babesean lehortzen ezarri ondoren hautsan bihurtzeko ehotu egin behar izaten da. Gero, taninoa ur putzu batzuetan nahasten da eta larruazala bertan zenbait egun igaro behar izaten ditu, taninoa larruan guztiz sartu arte. Ondo sartuta dagoenean artisauak koipe berezia ematen du larruan, lehortzen uzten du eta lantzeko prest dago.

***Larruen tindaketa*** Modu honetan larru eta larruazalean nahi dugun kolore modu egonkor batez finkatzen dugu. Tindaketa bi era desberdinez egin daiteke, kolorea modu zuzenean finkatuz edo mordente izeneko gai bitartekari baten bidez.

Erabilitako koloreak, naturalak, normalean landare koloreak, edo sintetikoak izan daitezke; gaur egun azken hauetatik aukera handia dagoelarik.

Bi dira larrua tindatzeko erabiltzen diren metodoak: frantses metodoa eta ingeles metodoa. Frantses metodoan larruak koloratzaile kantitate desberdina duten bainuetatik etengabe pasatzen dira, bainuak 35°C-tara berotuta daudelarik. Ingeles metodoan aldiz, larrua kabaletan batzuetan ondo zabaltzen da zimurrik egon ez dadin, eta ondoren, koloratzailez ondo bustitako zepilo bat zenbait aldiz gainetik pasatzen da.

***Koipeztaketa*** . Larrua lehortu ondoren, ondo tiratu eta koipeztaketa edo larruaren elikapena burutzen da. Larruaren kanpoko aldean, gantz eta bale-koipea edo arrainaren gibelaren koipea edo beste animalia baten koipearen nahasketa zabaltzen da espatula baten laguntzaz. Koipeztaketa modu mekanikoan batan bidez egin daiteke ere.

***Larruaren kontserbazioa*** Metatutako larruek hezetasunagatik edo zeharka animalia edo landare parasitoengatik aldaketak jaso ditzakete. Hezetasunaren eragina erretxina eta koipe nahasketa batekin tratatuz prebenitu daiteke. Onddo eta legamien garapena sodio kloruro 2% soluzioarekin garbituz eragotzi daiteke. Dena den, gaur egungo zurratze sistema modernoekin parasito eta edozein kriptogamoentzat erasoezinak diren larruak lortzen dira zuzenki.

## 4. ABARKAGINTZA

Abarkak, baserritar eta artzainen artean oinetako tradizionalak izan dira, lehengaien eboluzioa eta gomak agerpena egin zuen arte. Lehenengo larrua lehengai bezala desagertu zen, gomari txanda emanez; eta ondoren, desagerpena ia erabatekoa izan zen, Euskal Herriko jaietako elementu apaingarri gisa izan ezik; abarkak agertuz bai tradiziozko janzkeretan bai dantza-talde gehienen jantzietan.

Abarkak noiztik datozen jakitea oso zaila da, ez baitago datu zehatzik. Gure arbasoen artean bere erabilera adierazten diguten idatzi batzuk badaude; hauen artean zaharrena duela 2.000 urteko Erromatar idatzia dugu, non euskaldunak abarkak janzten zituztela adierazten diguana.

X. mendeko idatzi batean abarka gertaera historiko baten protagonista izan zela azaltzen zaigu: *“Don Sancho II erregeak, 985. urtean bere konaita Gillermo Sanchez Duque de Gascañari, Normandar Piraten aurka laguntzearren, Iruña konkistatu nahi bait zuten azken hauek, elurrez gainezka zeuden Pirineoak gurutzatu zituen bere soldaduekin ohinetan abarka zakar edo latz batzu zeramatzatela. Gertaera horren ondoren Don Sancho erregea Abarka ezizenez ezagutzen zen”*.

Beste idatzi batean, Codés Compostelamus-en idatzi latindarrean XII. mendean euskaldunak larru abarkak erabiltzen zituztela dio, hankari artilezko hariz lotuta.

### 4.1 Abarkak nola egiten dira?

Hona hemen, Jose Arrizabalaga, Elgoibarko abarkagileak, mende honen hasierako hamarkadetan abarkak egiterakoan jarraitutako pauso guztiak. Errespetatu egin dugu liburuan erabiltzen den euskara eta idazteko era ere.

*“Abarkaen neurriak zenbakiz izendatuak daude. Neurri txikienaren zenbakia, bi da. Geiena erabiltzen diranak, berriz, amarretik amirura bitartekoak. Zenbaki auek baño aundiagoak gutxi egiten eta saltzen dira.*

*Antzinetako abarka onen neurrietaz nolabait jabetzeko, alderatu dezagun onen zenbakera, gaurreguneko oñetakoen zenbakerarekin: zenbakiz amar dan abarkaren neurria, ogeita amaseiko zapatari dagokiona da. Amaika, ogeita emezortzikoari; amabi, berrogeitik berrogeita bi arterañoakoeri; amairu, berrogeita irukoari; eta amalua, berrogeita bosteko zapatari.*

*Abelgorrien larrua erabiltzen da abarkagintzan. Arrizabalaga-k Elgoibar-ko abeliltegian erosten ditu, ortarako bear dituan larruak, beren bustian. Bein larrua etxeratu duanean, eskulangileak garbitu egiten du aiztoa batez, eta ondoren, lehortzen jarri. Ontarako, ganbarako zoruan zabaltzen du, ta iltzez, ertzetan lurrari josia uzten, zimurgunerik ez dezan. Legortzen bear izaten duen denbora egoaldiaren baitan ibiltzen da. Aste betean gelditu diteke abarkagintzarako gertu, eta bai ogei egun bear izan ere.*

*Larrua lanerako bear dan eran tajutua gelditzen danean, pillan jartzen du, eta an gelditzen da, eskulangilleak bear duan arte.*

*Abarkeruak (izen au ematen diote Arrizabalagari, Deba errekan) erretangulozko zur batean egiten ditu abarkak, zura belaun gañean duala.*

*Lendabizi, zenbakieri dagozkien, molde batzuez (plantilla batzuez) baliaturik, markatu ta ebaki egiten du larrua. Markaketarako ezten bat erabiltzen du; ebakitzen berriz, aiztoa bat.*

*Gure abarka osokoa da. Bear dan neurriko larrua eskuetan duanean, soilketari ekiten dio. Lan au, mutur batean aizkora aoa daraman, zurezko tresna batez egiten du. Soilketa au errexago egiteko, errautsez estalia euki izan dute larrua abarkagilleek. Gero, abarka jostea errexeta gerta dedin, urepeletan beratzen jartzen du larrua. Bere ertz guzia zulatu ondoren, larru beratuari atera dizkion zerrenda batzuek erabiltzen ditu jost-aritzat. Batzuetan, erostunak ala eskatuta algodoizko zinta batzuek ezartzen dizkie.*

*Eskulangintzaren beste eginkizun batzuen artean, zaleak izan dira artzaiak abarkaentzat lokarriak antolatzen. Ontan, ardi-illea erabiltzen zuten.*

*Auek dira abarkagile onen tresnak: trapezoide tankerako moldeak; urkilla; aiztoa; soilketarako tresna, bi abarka-ziri (larrua zulatzeko bat, eta josterakoan bestea), guraizak; abarka ertzak txukuntzeko eta eta zuzezko mazotxo bat "mazetia".*

*Abarkaren kolorea, erabili dan larruak daukan kolorearen baitan dago. Orixka izan du, gehienetan, erostunak gogokoen."*

## **4.2 Abarkak nola egingo dituzue ?**

Gaur egun jazten ditugun abarka gehienak era industrial batetan daude eginak, hau da, komertzioetan ikusten ditugunak lokarriaz lotuak dira nahiz eta larruzkoak izan, aitzinean larruzko ariz jotzen ziren, abarka guztia larruzkoa.

Hala ere oraindik aitzinako eran egiten aritzen diren artisau bat edo beste gelditzen dira, eta horietako bat Gabirian topa dezakegu, Astiazaran baserrian hain zuzen ere. Abarkagintzako afizioa bere aitonarengandik ikasi zuen txikitan eta egun arte mantendu.

Aipatu bezala aintzin-aitzinatik larrua betidanik erabili ohi izan den gaia da: janzteko, tresnak egiteko, apaingarri bezala, pilotak, animalientzako, ... Larru mota ezberdin asko daude: behi larrua, ardi larrua, ahuntz larrua, ... Bata bestearengandik bere ehundura, loditasuna eta gogortasunean bereizten dira. Ahuntz larrua adibidez, ardiarena baino gogorragoa da eta erremonete eta “pala corta”-ko pilotak egiteko erabiltzen da.

Abarkak egiteko ordea, behi larrua erabiltzen da, bere tesituragatik maneiatzeko errazagoa gertatzen delako. Zehazki animalia-aren lepoaldeko larru zatia erabiltzen da, bere kalitate eta loditasunagatik, ebaki, forma eman eta josteko egokiena. Larruaren loditasuna animalia-aren gorputzeko zati guztietan ez baita berdina: lodiena bizkar gainekoa da.

Larruaz gain, abarkagintzan behar beharrezkoak gertatzen diren lan tresnak honako hauek dira:

- Abarka ola: larrua zulatzeko ola honen gainean jartzen da.
- Abarka eztena edo zulatxikia: tresna nagusia da, zuloak egin eta soka pasatzeko
- Mailua: abarka eztena kolpekatuz.
- Laban zorrotza larrua mozteko.
- Guraize edo artaziak larrua mozteko.

## **ABARKA EGITEKO PROZESUA.**

1. Larrua neurritara ebaki behar da. Horretarako artisauak laban zorrotza erabiltzen du, baina guk guraziekin moztuko dugu. Larrua oinetako zenbakiaren neurritara ebaki behar da, goiko marrazkian azaltzen den forma emanez.
2. Ondoren, moztutako larruaren ertzetan, abarka eztena edo zulatxikia eta mailua erabiliz larrua zulatu behar da gero soka pasa eta abarkari forma emateko. Larrua zulatzeko, abarka ola gainean jartzen da.
3. Ondoren, **begietan** larru beltza sartu behar da. Ainton-amonen garaian begidun abarkak igandetan janzen ziren, egunero erabiltzen zirenak begigabeak ziren.



4. Larruaren zatirik zabalenean puntzoia erabiliz zulotxo borobilak egingo ditugu. Zulotxoak hari batekin josten dira. Hari honi, argizari pasako diogu hezetasunaren aurka babesteko eta josteko garaian erraz labaintzeko zuloetatik. Josteko larrua erditik biltzen da eta alde batetik bestera zuloetatik haria jostorraz batez lagunduta pasatzen da, amaitzean korapilo batez lotuz. Jositakoari buelta eman eta abarka punta egina dugu.
5. Ondoren larruaren ertzetako zuloak josiko ditugu abarkari hanka forma emanaz. Josteko, larruzko haria edo josteko uhala erabiltzen da. Beti aurrealdetik hasten da josten, hau da, puntatik atzealderantz. Josteko uhala ardi gantz edo seboaz busti behar da, labaindu dadin.
6. Behin dena josi ondoren eta abarkari forma eman ondoren, abarka muturra edo punta ez haustearren lazoa jartzen zaio. Honek abarkari gorputza ematen dio.
7. Abarkari behin-behineko forma eman ondoren, abarka soka lotzeko zintak jarri behar zaizkio abarkari alde bakoitzean. Ondoren soka edo abarka traila jarri eta abarka egina dugu. Abarka traila edo soka, ardi ilearekin eginikoa da, soka bakoitzak 12 ari behar ditu elkarren artean lotuta.

## **HIZTEGIA**

**Albuminoide.** Albuminaren izaera duena. Uretan disolbagarri diren eta beroarekin koagulatzen diren proteinak

**Aiztoa.** Tresna ebaikitzailea, altzairu edo burdinezko xafka aho bakarrez eta kirten batez osatua.

**Batan.** Tresna hidraulioa. Larrua zendotasun handiago eduki dezan batanak dituen mailuekin kolpatu egiten da.

**Eskulangileak.** Artisauak.

**Eztena.** Matalezko tresna puntazorrotza, larruan, goma etab.etan zuloak edo markak egiteko erabiltzen dena. Zapatarien eztena.

**Hantura.** Handitzearen ekintza eta ondorioa.

**Hiltegia.** Abereak hil eta larrutzen diren tokia edo lantegia.

**Koipeztu.** Koipez bete.

**Legamia.** Hainbat onddo askomikotino zelulabakarren izen arrunta. Edari alkoholikoak, ogia, eta beste hainbat elikagai egiteko erabiltzen diren hartzidurak burutzeko gai dira.

**Ondu.** Larrua usteldu ez dadin eta material erabilgarria izateko prestaketa.

**Oianbularra.** Oinaren gainkaldea. "Enpeinea".

**Tajutu.** Zerbaiti forma edo itxura jakina eman, disenatu.

**Tanino** Hainbat landaretan egon ohi den sustantzia lehorgarria, batez ere larrua ontzeko erabiltzen dena.

**Soildu.** Gehiegizko elementuaz gabetu utzi edo gerartu. Ilea kendu.

**Urkillia.** Bi zatitan, V edo Y forma hartzen duela, banatu dagoen adar, makila, haga nahiz pieza mekanikoa, erabilera desberdina dituen.

**Zurra(tu)** Larrua landu.

## **ORIENTABIDEAK**

### **GAIA ZABALTZEKO BIBLIOGRAFIA.**

- **Curtición de pieles y cueros. Manual práctico del curtidor.** 1.980, Editorial Sintés, Barcelona.
- **Trabajo del cuero.** 1.985, Ediciones CEAC, Barcelona
- **Artesanos I.** Gabriel Imbuluzketa. 1.987, Gobierno de Navarra.

### **GAIA ZABALTZEKO AKTIBITATEAK.**

- Larrugintzako lantegi batera bisitaldia, eta hau ezinezko izango baliz larru-denda batera larruaren erabilpen desberdinak ikusi ahal izateko.
- Simulaketa jokua: larrugintzak gaur egun zenbait animalia basati espezien egoeran duen erlazioa, konponbideak eta abar.
- Larruarekin eskulanak.